



SASKIBALLOIA

JOLASAREN ARAUAK (Benjaminak-Alebinak)

⇒ Talde bakoitzeko **5 jokalari** egongo dira kantxan. Partida jokatzeko orduan talde batean jokalari nahikorik ez balego, guztira **4 kirolari**, horrela jokatu da:

- 3. eta 4. mailetan taldeak nahastuko dira.
- 5. eta 6. mailetan, taldeak nahastu eta partida galduko du.

⇒ Zati bakoitzari hasiera emateko “sake neutrala” egiten dakantxaren erditik.

⇒ **10’ko 4 zati** jokatu dira, eta aldaketak guztiek **denbora bera joka dezaten** erabiliko dira. Dena dela, lesio edo istripurik izan ezean, **lehen hiru zatietan** ezingo da aldaketarik egin. **Laugarren zatian** nahi beste aldaketa egin ahal izango dira. (talde batean 10 jokalari baino gehiago badaude aldaketak edozein momentutan egin ahal izango dira)

⇒ Lehenengo **hiru zatietan** jokalari bakoitzak **gutxienez** zati bat, eta **gehienez**, bi zati joka ditzake.

⇒ Jokalari batek ezin izango du baloia eskuetan duela **bi pausu baino gehiago** eman. Ekintza hori falta izango da; “**urratsak edo pausoak**”.

⇒ Baloi botatu eta gero behin eskuan hartzen bada, ezin izango da berriro boteka hasi. Hori eginez gero, “**bikoitza**” adieraziko da. Hori gerta ez dadin, aukerak hauek dira: jaurtitzea edo lagunari pasatzea.

⇒ **Ez** da “**zelaian atzera**” eta “**zona**” adieraziko.

⇒ **HIRUKO** jaurtiketarik **ez da puntuatuko**; ez dira kontatuko

⇒ **Falta pertsonalen zenbaketarik ez** da egingo.

⇒ **Jarrera Desegokiak**: Jokalari batek jarrera desegokia izaten badu, epaileak, entrenatzaileak edo/eta koordinatzaileak **2 minuturako kanporatu** dezake. Beste taldekide bat sartuko litzateke bere partez.

⇒ **Partidaren emaitza** saskiratze bidez lortutako **puntu guztien** baturak adieraziko du. (24-18, 13-16...)

